

«MUBIL Mobility Awards 2026» sarien informazioa

1. Xedea.

Dokumentu honen xedea da MUBIL Mobility Awardsen (aurrerantzean, MMA) prozeduraren eta baldintzen berri ematea.

Dokumentu hau informazioa emateko baino ez da, eta saria emateko prozedura «**MUBIL Mobility Awards**» sarien **oinarri arautzaileak** betetzearen mende dago –Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu ziren 2023ko martxoaren 31n– bai eta sariaren urteko deialdian adierazitakoa betetzearen mende ere (2026ko edizioan, 2026eko maiatzaren 5eko GAO n argitaratu zen).

MUBIL estrategiaren helburua da Euskadi, mugikortasun adimendun eta jasangarriaren eta energia-metaketa, industria-erreferente bihurtzea nazioarte mailan. Estrategia hori mugikortasun adimendun eta jasangarriaren MUBIL Hub-ean gauzatzen da: topaketarako, elkarrekintzarako eta integrazioarako espazio-ekosistema bat da eta, bertan, aukera berriak sortzen dira. Agertoki horretan, berrikuntza estrategia eta lehiakortasun faktore bihurtuko da, enpresak eta gizartea garatzeko.

Testuinguru horretan, MMAek saritu nahi dituzte **gutxienez prototipatze-fasean dauden inpaktu handiko teknologietako proiektuak**. Fase horretan egoteak esan nahi du badagoela bideragarria den gutxieneko produktu bat edo eredu bat (irudikapena, erakustaldia edo simulazioa), identifikatutako arazoa konponduko duena eta MUBIL estrategiaren jarduketa-eremuekin lerrokatuta dagoena. Zehatzago esanda:

- mugikortasun konektatua
- mugikortasun autonomoa
- mugikortasun partekatua
- mugikortasun elektrikoa
- erlazionatutako azpiegiturak

2. Parte-hartzaileak eta proiektuaren betekizunak.

Aurkeztutako hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Sari hau prototipatze-fasean dauden eta inpaktu handia duten proiektuetarako da.

Prototipatze-fasean egoteak esan nahi du badagoela bideragarria den gutxieneko produktu edo zerbitzu bat edota identifikatutako arazoa konponduko duen eredu bat (irudikapena, erakustaldia edo simulazioa), merkaturatzeko puntuan edo merkaturatze-fasean dagoena.

Era berean, inpaktu handiko proiektutzat hartzen da osagai berritzaile nabarmena duena eta, teknologiari esker, mugikortasun adimendunaren eta jasangarriaren eremuan eraldaketa eragin dezakeena.

- Honako hauek parte hartu ahal izango dute:

- Estatuko edo nazioarteko edozein **ekintzailek** edo ekintzaile-taldek.

- Estatuan edo nazioartean jada eraturako **sozietateek**, azken ekitaldian aurkeztuko duten proiektuan ez badute 500.000 euro baino gehiago fakturatu.
- Estatuko edo nazioarteko **zentro teknologikoe**k eta **unibertsitateek**.

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, pertsona fisikoek eta/edo juridikoez ezin dute Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan onuradun-izaera lortzeko adierazitako debekuetakoren bat izan, eta oinarrietan adierazitako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.

Aurreko atalean adierazitakoa eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da.

Lehiaketan parte hartzekotan, oinarriak onartu egin behar dira.

3. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

a) Eskaeren erregistroa:

Eskaerak <https://mobilityawards.mubil.eus/eu/> estekaren bidez erregistratuko dira, eta horretarako prestatutako berriazko inprimakia eta eskatutako gainerako agiriak bete beharko dira.

Parte-hartzaile bakoitzak proposamen bat baino gehiago aurkeztu ahalko ditu (betiere, proposamen ezberdinak badira), epearen barruan edozein unetan. Gehienez, 5 proposamen onartuko dira. Hala ere, ezingo du sari bat baino gehiago eskuratu deialdi bakoitzean.

Erregistratzeko prozesuaren bidez, parte-hartzaileek honako hau adierazten dute:

- Oinarriak onartzen eta betetzen dituztela.
- Parte-hartzaileek behar bezalako baimena dutela proposamena aurkezteko, baita lehiaketak irauten duen bitartean behar diren izapideak eta/edo jarduketak egiteko ere.
- Beren irudi-eskubideak MUBIL Fundazioari lagatzen dizkiotela, MMAen esparruan.
- Datuak babesteko klausula eta klausula horren araberrako tratamendua onartzen dituztela.
- Emandako informazioa fidagarria dela.
- Aurkezten dituzten ideien egile intelektualak direla, eta ez dutela informazio pribilegiaturik edo behar diren baimenik gabe erregistratutakorik erabili.
- Egileak erantzule direla jabetza intelektualari edo jabari pribatuko informazioa erabiltzeari buruzko edozein erreklamazioren aurrean, MUBIL Fundazioa kalterik gabe mantenduz erreklamaziorik egonez gero.
- Eskatzen zaien informazio gehigarria emateko konpromisoa.

- Irabazleak iragarri aurretik, taldearen eraketan izandako aldaketen berri emateko konpromisoa.
- Proposatutako irtenbidea frogatuta dagoela edo, gutxienez, frogatu behar da proposatutako irtenbideak bere helbururako funtzionatzen duela erakusten duten adierazle edo proba nahikoak daudela.

b) Dokumentazioa bidaltzea:

Deialdiaren informazioa eta eskaera-inprimaki normalizatuak helbide elektronikoa honetan egongo dira eskuragarri: (<https://mobilityawards.mubil.eus/eu/>)

Eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Eskaera-orria normalizatua, eranskinean jasotzen dena (online formularioan osatu behar da).
- Ideiaren laburpen exekutiboa, eranskinean jasotzen den eredu normalizatuaren arabera, gehienez bi orrikoa, ideiarekin alderdi eta balio nagusiak jasoko dituena.
- Memoria, eranskin honetan jasotzen den eredu normalizatuaren arabera. Bestela, proiektuaren negozio-plana aurkeztu ahalko da.
- AUKERAKOA: Proiektuaren aurkezpen-bideoa (gehienez 3 minutu).
- Pertsona fisikoen aldetik: Bizilekuko errolda-ziurtagiria.
- Pertsona juridikoak: Eratzeko eskriturak.
- Oinarrietako baldintzak betetzen dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, eranskinean jasotako eredu normalizatuaren arabera.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiriak, Ogasunak eta Gizarte Segurantzak emanak.

c) Eskaerak aurkezteko epea 45 egun naturalekoa izango da, dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

4. Sariak.

Sari hauek emango dira:

Lehenengo saria:

- 12.500 euro gordineko zuzkidura ekonomikoa.

OHARRA:

- Edizioko MMAen ekitaldian saria adjudikatu eta 60 egun igaro baino lehen ordainduko da zuzkidura ekonomikoa.
- Dagokion atxikipena aplikatuko zaio sariaren zenbatekoari (zuzkidura ekonomikoa).
- EAEko eragileekin lankidetzan egindako proiektuen finantzaketa (12.500 euro gordin, gehienez).

OHARRAK:

- Lankidetza ezin da merkataritza-garapen bat izan (salmenta edo erosketa bat); aitzitik, produktu-/zerbitzu-garapen bat izan behar da (garapen tekniko bat).
 - Garapena lehiaketako proiektu irabazleari dagokio.
 - Lankidetza lurraldeko edozein eragilerekin egin daiteke: teknologia-zentroak, Lanbide Heziketako zentroak, unibertsitateak, enpresak, elkarteak...
 - Proiektua garatzeko kolaboratzailea saritutako erakundeak bilatuko du. MUBIL ez da arduratuko kolaborazioak eta eragileak bilatzeaz.
 - Akordioa dagoela egiaztatu behar da. Horretarako, aurrekontu bat eta garatuko diren lanen deskribapena aurkeztuko dira. Irabazleak eta MUBILek elkarlan-proiektua onartzeko dokumentua sinatuko dute. Edizioko MMAen ekitaldian saria adjudikatu eta 12 hilabete igaro baino lehen sinatu beharko da onarpenera.
 - Finantzaketa honela ordainduko da: %50a onarpen-dokumentua sinatzean eta beste %50a lankidetzaren exekuzioa bukatzean, lankidetzaren eta gauzatutako lankidetza-proiektuaren amaiera-dokumentu bat sinatu behar denean, dagozkion frogagiriak aurkeztuta. Saria MMAren ekitaldian esleitzen denetik 24 hilabete igaro baino lehen amaitu eta sinatu behar da lankidetzaren amaiera.
 - Finantzaketa eragile batekin edo gehiagorekin izan daiteke; betiere, ezarritako gehienekoa gainditzen ez bada. Proiektu baten aurrekontua gehieneko zenbatekoa baino handiagoa bada, gehieneko zenbatekora arte finantzatuko da.
 - Eragile kolaboratzailearen EAEko IFKa aurkeztu behar da.
 - Elkarlan-proiektua onartzeko sinatu eta ondorengo 60 egunen barruan ordainduko da finantzaketaren zenbatekoa.
 - Dagozkion atxikipena aplikatuko zaio sariaren zenbatekoari (proiektu-finantzaketa).
 - Elkarlan-proiektua ez bada gauzatzen edo aurreikusitakoaren zati bat bakarrik gauzatzen bada, dagozkion zenbatekoa itzuliiko zaio MUBILi (guztia edo zati bat, gauzatu denaren arabera).
- Espazioa MUBIL Center-en bulegoetan edo Bic Gipuzkoa Berrilan SA habian, urtebetez proiektu bat egiteko (7.500 euro gordin, gehienez).
 - Proiektua ekosistemarekin kontrastatzeko aukera.
 - EAEko eta nazioarteko finantza-ekosistemara sartzeko aukera.
 - Emaitzak sustatzea eta zabaltzea.
 - MUBIL Mobility EXPO azokan «Pack start up» modalitateko stand bat izateko aukera (doakoa), proiektua irabazle suertatzen den urtearen hurrengo edizioan. Puntu hori azokan tokia egotearen arabera izango da. Standak 700 euroko balioa du, eta MUBIL Mobility Exporen eskaintza da («Pack Start up» modalitatearen berezko prestazioak barne hartzen ditu sariak). Kontratututako beste zerbitzu-gastu batzuk interesdunek ordaindu beharko dituzte).

Bigarren saria:

- 4.000 euro gordineko zuzkidura ekonomikoa.

OHARRA:

- Edizioko MMAen ekitaldian saria adjudikatu eta 60 egun igaro baino lehen ordainduko da zuzkidura ekonomikoa.
 - Dagozkion atxikipena aplikatuko zaio sariaren zenbatekoari (zuzkidura ekonomikoa).
- EAEko eragileekin lankidetzan egindako proiektuen finantzaketa (6.000 euro, gehienez).

OHARRAK:

- Lankidetza ezin da merkataritza-garapen bat izan (salmenta edo erosketa bat); aitzitik, produktu-/zerbitzu-garapen bat izan behar da (garapen tekniko bat).
- Garapena lehiaketako proiektu irabazleari dagokio.
- Lankidetza lurraldeko edozein eragilerekin egin daiteke: teknologia-zentroak, Lanbide Heziketako zentroak, unibertsitateak, enpresak, elkarteak...
- Proiektua garatzeko kolaboratzailea saritutako erakundeak bilatuko du. MUBIL ez da arduratuko kolaborazioak eta eragileak bilatzeaz.

- Akordioa dagoela egiaztatu behar da. Horretarako, aurrekontu bat eta garatuko diren lanen deskribapena aurkeztuko dira. Irabazleak eta MUBILek elkarlan-proiektua onartzeko dokumentua sinatuko dute. Edizioko MMAen ekitaldian saria adjudikatu eta 12 hilabete igaro baino lehen sinatu beharko da onarpena.
 - Finantzaketa honela ordainduko da: %50a onarpen-dokumentua sinatzean eta beste %50a lankidetzaren exekuzioa bukatzean, lankidetzaren eta gauzaturako lankidetzaren amaiera-dokumentu bat sinatu behar denean, dagozkion frogagiriak aurkeztuta. Saria MMAren ekitaldian esleitzen denetik 24 hilabete igaro baino lehen amaitu eta sinatu behar da lankidetzaren amaiera.
 - Finantzaketa eragile batekin edo gehiagorekin izan daiteke; betiere, ezarritako gehienekoa gainditzen ez bada. Proiektu baten aurrekontua gehieneko zenbatekoa baino handiagoa bada, gehieneko zenbatekora arte finantzatuko da.
 - Eragile kolaboratzailearen EAeko IFKa aurkeztu behar da.
 - Elkarlan-proiektua onartzeko sinatu eta ondorengo 60 egunen barruan ordainduko da finantzaketaren zenbatekoa.
 - Dagozkion atxikipena aplikatuko zaio sariaren zenbatekoari (proiektu-finantzaketa).
 - Elkarlan-proiektua ez bada gauzatzen edo aurreikusitakoaren zati bat bakarrik gauzatzen bada, dagozkion zenbatekoa itzuliko zaio MUBILi (guztia edo zati bat, gauzatu denaren arabera).
- Espazioa MUBIL Center-en bulegoetan edo Bic Gipuzkoa Berrilan SA habian, urtebetez proiektu bat egiteko (7.500 euro gordin, gehienez).
 - Proiektua ekosistemarekin kontrastatzeko aukera.
 - EAeko eta nazioarteko finantza-ekosistemara sartzeko aukera.
 - Emaizak sustatzea eta zabaltzea.
 - MUBIL Mobility EXPO azokan «Pack start up» modalitateko stand bat izateko aukera (doakoa), proiektua irabazle suertatzen den urtearen hurrengo edizioan. Puntu hori azokan tokia egotearen arabera izango da. Standak 700 euroko balioa du, eta MUBIL Mobility Exporen eskaintza da («Pack Start up» modalitatearen berezko prestazioak barne hartzen ditu sariak). Kontrataturako beste zerbitzu-gastu batzuk interesdunek ordaindu beharko dituzte).

Aipaturako sariez gain, Bic Gipuzkoa Berrilan SArean aholkularitza izango dute haien ideiak azkartze aldera, aurretik sarituek onartuta, baldin eta ideia horiek bultzatu edo garatu badaitezke ekimen berriaren bideragarritasunaren, abiaraztearen eta garapenaren azterketa egiteko dauden prestakuntza-programen eta -ekintzen bidez, betiere, horietan adierazitako baldintzak betetzen badira. Era berean, Bic Gipuzkoak berrikuntzan, enpresa-kudeaketan eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berrietan (IKT) eskainiko duen prestakuntza jaso ahal izango dute, ekimenaren beharren arabera.

Sarituen izena eta irabazle suertatu diren ideiak hedabideetan zabalduko dira. Zuzkidura ekonomikoa Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoen araudiak ezartzen duen zerga-atxikipenaren mende egongo da.

5. Finantzaketa.

Sariak MUBIL Fundazioaren deialdiaren urteari dagozkion aurrekontuen kargura finantzatuko dira.

6. Instrukzioa.

Sariak emateko prozeduraren instrukzioa MUBIL Fundazioko talde teknikoak egingo du.

Ofizioz egingo dira ebazpen-proposamena emateko kontuan hartuko diren datuak zehazteko,

ezagutzeko eta egiaztatzeko behar diren jarduera guztiak.

7. Sariak ematea.

Sariak norgehiagokako prozeduraz emango dira, eta deialdi bakarra eta hautaketa-prozesu bakarra egingo dira.

Hautaketa, printzipio hauen arabera egingo da: publikitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna, koherentzia eta diskriminaziorik eza.

Sariak emateko prozedura ofizioz hasiko da deialdi publiko bidez (MUBIL Fundazioko presidentek onetsiko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da).

Ebaluazio-batzorde bat (edo epaimahai bat) izendatuko da aurkeztutako proposamenak baloratzeko. Batzorde hori ekintzailtza-ekosistemako nazioarteko ordezkariak, enpresetako zuzendariak eta erakunde publikoetako ordezkariak osatuko dute.

Sariak emateko prozedurak fase hauek izango ditu:

I. Aldez aurreko azterketa eta hautagaien (proiektu finalistak) aurretiko hautaketa.

Proiektu bakoitza jaso ondoren, jasotako proposamenen aurretiazko azterketaren fasea hasiko da. Azterketa horrek irizpide hauek izango ditu ardatz:

-Merkatura iristea: proiektu batek merkatu-premia bati erantzuten dion eta negozio-eredu jasangarria duen produktu edo zerbitzu bat garatzeko zer gaitasun duen.

-Berrikuntza maila: proiektuak arazo bat konpontzeko zer gaitasun duen eta konponbiderako produktuak/zerbitzuak zer berrikuntza maila duen.

-Inpaktua eta potentziala: hazteko eta aldaketa garrantzitsu bat sortzeko zer gaitasun duen.

-Aurkezpena: bidalitako informazioaren aurkezpena.

-Deialdiaren oinarriak betetzea.

MUBIL Fundazioko eta Bic Gipuzkoa Berrilan SAko langileez osatutako batzorde tekniko batek eskaerak aztertuko ditu, eta onartutako proposamenak eta finalista gisa proposatutakoak jasoko dituen txosten bat egingo du.

II. Defentsak. Hautatutako proiektuak ebaluazio-batzorde baten aurrean aurkeztea.

Aurrez hautatutako proiektuei (proiektu finalistak) dei egingo zaie beren ekimena aurkezteko.

Proiektu finalistek nahitaez parte hartu behar dute aurrez aurre sarien fase honetan, MUBILen

egoitzan edo MUBILEk sarietarako izendatutako tokian. Fase honek egun bat iraungo du gutxi gorabehera. MUBILEk proiektuaren ordezkari baten¹ bidaia- eta ostatu-gastuak ordainduko ditu.

Fase honetan hauek sartzen dira:

- Hautatutako proiektuak ebaluazio-batzordearen aurrean **aurkeztea eta defendatzea**.
- **Amaierako ekitaldia**. Sarituen berri emango da. Azken ekitaldian – publikoa izango da- hiru minutuko pitch bat egingo du proiektu bakoitzeko ordezkariak (hautagaien pitcha prestatzeko laguntza emango zaie mentoring-prozesu baten bidez).

Ebaluazio-batzordeak honako irizpide eta baremo hauek hartuko ditu kontuan aurkeztutako proiektuak ebaluatzerakoan:

- Merkatuaren erakargarritasuna.
- Balioa eta lehiatzeko abantaila eskaintzen duen proposamena.
- Negozio-eredua.
- Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa.
- Taldea eta ekintzaitza-orientazioa.
- Eskalagarritasuna.
- Proiektua abian jartzeko beharrak (ekintzailea bada).
- Aurkezpena eta defentsa: Ideiaren aurrez aurreko aurkezpen laburra honako hauek jasoz, besteak beste: konpontzen duen arazoa, dagoen eskaera, emandako konponbidea (balio-proposamena), negozio-eredua eta arrakasta izateko arrazoia. Epaimahaiak egindako galderen eta iruzkinen defentsa ere baloratuko da.

Batzordeak edozein sari eman gabe utzi ahal izango du hautagaiak eskatutako kalitatera iristen ez badira, behar bezala arrazoituta.

¹ Gastuei buruzko ohar garrantzitsuak:

- MUBILEk ez ditu bidaiatik iristeko puntutik (aireportua edo tren-geltokia) hotelerako transferrak ordainduko. Horretarako garraio-bide publikoari buruzko informazioa emango zaie finalistei. Joan-etorri horietako gastuak finalistak ordainduko ditu (2 eta 15 euro bitarteko gutxi gorabehera, transfer bakoitzeko).
- Programa ofizialeko beste transfer batzuk (adibidez, hoteletik MUBIL Center-era bitartekoak) MUBILEk antolatu eta ordainduko ditu. Garraio hori erabiltzen ez duten finalistek beraien kabuz antolatu, kudeatu eta ordaindu beharko dituzte joan-etorri horiek.
- EZIN IZANGO DA aldaketarik egin hegaldietan (hau da, ezin izango dira helmuga-/irteera-hiriak edo egunak aldatu), finalistekin erreserba-beharrak adostu ondoren. Alegia, MUBILEk hegaldi-erreserba bakarrik egingo du finalistak bakoitzeko; beraz, edozein aldaketa finalistak ordaindu eta kudeatuko du.
- Finalista arduratu beharko da hegaldien erregistroak egiteaz (bai eta bestelako bidaia-berrespenak ere). MUBILEk erreserba bidali ondoren, bidaia baino gutxi gorabehera 24 ordu lehenago egin beharko ditu erregistroak. MUBILEk ez du bere gain hartuko bidaien kudeaketarik edo gastu osagarriak (adibidez, eserlekuak aukeratzea).
- MUBILEk ez du bere gain hartuko bidaiaren beste ezin gastu (ezohiko dietak, programa ofizialek kanpoko gastuak...).

8. Sari-ematea ebaztea.

Sari-ematea ebatzi, eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Gehieneko epea amaitutakoan berariazko ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek ulertu ahalko dute eskaera administrazioaren isilbidez ezetsi dela.

MUBIL Fundazioaren presidentea izango da oinarrietan aurreikusitako sariak ematea ebazteko organo eskuduna. Hala ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 16. xedapen gehigarrian xedatutakoa betez eta Diputatuen Kontseiluak 2023ko martxoaren 14an oinarriak onartzeko hartutako erabakiaren bidez emandako gaitasunarekin bat, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru-diputatuari dagokio aurrez sari-ematea baimentzeko gaitasuna.

9. Sarien ordainketa.

Sarien zenbatekoa onuradunei ebazpena jakinarazi eta berehala ordaindu ahalko da, ebazpenetik kontaktzen hasita gehienez ere 60 eguneko epean, deialdiaren ekitaldian, betiere oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen badira. Saria irabazle suertatu den pertsona fisiko edo juridikoaren izenean dagoen banku-kontuan ordainduko da, eta indarrean dagoen araudiak ezarritako zerga-atxikipenaren mende egongo da.

10. Konfidentzialtasuna, irudi-eskubideak eta jabetza intelektuala eta industrialak.

MUBIL Fundazioak eta deialdiaren ebaluazio-batzordeak aurkeztutako hautagaien konfidentzialtasuna gordeko dute prozesu osoan.

Parte-hartzaileek oinarri arautzaileak onartzeak berekin dakar berariazko baimena ematea MUBIL Fundazioak publizitate- eta hedapen-jarduerak egin ditzan, deialdiarekin lotutako informazio helburuekin bakar-bakarrik.

Proiektuaren eskubideak eta edukiak, ezarpen-fasean garatutakoak, irabazle suertatu den pertsona fisiko edo juridiko bakoitzarenak izango dira; gainera, lortutako emaitzak zabaltzeko lanak ere egin ahal izango dituzte pertsona horiek.

Saridunek izaera horren publizitatea egin ahal izango dute idazpuru, iragarki eta memorietan, baita sarien berri eman edo argitaratu ere edozein komunikabidetan.

11. Datu pertsonalak babestea.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, MUBIL Fundazioak antolatu eta sustatutako sarien esparruan ematen diren datu

pertsonalak MUBIL Fundazioak tratatuko ditu –bera da tratamenduaren arduraduna– honako helburu hauekin:

- MMAen garapena, kudeaketa eta kontrola ahalbidetzea, lege-oinarrien arabera.
- Parte-hartzaileek emandako irudiak eta MMAen fase eta ekitaldietan lortutakoak tratatu, eskuratu eta/edo zabaltzea, lege-oinarrietako «Konfidentzialtasuna, irudi-eskubideak eta jabetza intelektuala eta industrialia» atalean adierazitako baldintzetan.
- MUBIL Fundazioaren jarduerari, ekitaldiei eta/edo ekimenei buruzko komunikazioak bidaltzea, edozein bitartekoren bidez (bitarteko elektronikokoak barne).

Hautagaiek sari honetan parte hartzeko emango dituzten datu pertsonalak egiazkoak eta zehatzak izango dira. Hautagaiek bermatzen dute ematen dituzten datu pertsonalen titularren baimena dutela MUBIL Fundazioari jakinarazteko, lege oinarrietan aurreikusitako helburuekin. Datu pertsonalak gorde egingo dira ezabatzeko eskatzen ez den bitartean.

Datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskatu ahal izango da, baita datuen tratamendua mugatzeko eta datuak eramateko ere, aplikatzekoa den araudian aurreikusitako arrazoiak edo inguruabarrak gertatzen direnean. Horretarako, honako helbide elektroniko hau erabili ahal izango da eskaera bideratzeko (mubil@mubil.eus), betiere NANaren fotokopiarekin edo nortasuna egiaztatzen duen beste edozein agirirekin batera, MUBIL Fundazioari zuzenduta.

Azkenik, jakinarazten da, halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamazio bat aurkez daitekeela, baldin eta jakiten bada edo uste bada gertaera batek urratu egin dezakeela datuen babesaren arloan aplikatzekoa den araudia.

12. Araubide juridiko aplikagarria.

Oinarrietan aurreikusitakoaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua eta hura garatzeko Erregelamenduak (apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartuak) xedatutakoa beteko da.